

1929ko Depresioak eta New Deal-ak argazkilaritzan izandako eragina

**Malen Horton - Libe Ramila
EHUko Artearen Historia ikasleak**

Sarrera

Lana egiteko aukeratu dugun gaia 1929ko Depresioa eta horrek argazkigintzan izan zuen eragina da. Gai hau aukeratzearen arrazoia AEBen historiari buruz daukagun zuloa pixka bat betetzeko asmoa izan da. Horrekin batera, gizarte kapitalista orok duen lotura eta oinarri hauskorraren erakusgarria ere badenez gai interesgarria iruditu zaigu.

Halaber historia aztertzeke orduan arteek duten garrantzia ere agerian utzi nahi izan dugu. Askotan historia bakarrik doan giza zientzia bezala erakusten da, eta lan honekin agerian gelditzen da arteek, argazkilaritzak kasu honetan, historia marrazten eta azaltzen laguntzen dutela. Gainera garaiko politikariek horren kontzientzia izango zutela suposatzen dugu krisi garaian dirua eta denbora argazkilarietan gastatzeko.

Argazkilaritza moda eta estetika kontua bakarrik ez dela ere erakutsi nahi dugu. Ondorengo argazkiak kontzientzia historiko eta sozial argiarekin daude aterata, garaiko gizartea, klaseak eta bizimoduak erakusteko asmoarekin eginda baitaude.

Emakume artistei garrantzi gutxi ematen zaiela esaten da. Lan hau eta FSA horren kontrako adibideak dira. Dorothea Lange XIX. mende bukaeran jaio eta XX. mendean zehar eta oraindik ere emakume artista garrantzitsu bat izan da.

Normalean botereak artearen erabileran izan duen eragina pinturaren, eskulturaren eta arkitekturaren aldetik aztertzen da. Guk arte mota berriago bat aukeratu nahi izan dugu, egoera berezi batean jaio zela azpimarratuz.

I. Testuinguru historikoa

I.1. Sarrera

Hogeigarren hamarkadan, estatubatuarrek ordura arteko bizi baldintzarik onenak izan zituzten. *Prosperity*aren garaia zen. Ondoren, ia gauetik goizera, munduko lurralde aberatsena miseria gorrian sartu zen.

Depresioa 1929ko udazkenean hasi zen. Ameriketako Estatu Batuek sekula bizi izandako depresio okerrena izan zen, biztanle askorengana iritsiz eta denbora luzean iraunez. Ondorengo hiru urteetan ekonomia beheraka joan zen eta suspertzea oso geldoa izan zen; hamarkada bat igaro zen oparotasuna berreskuratu arte.

Mundu mailan, lehen mundu gerraz geroztik, ekonomia kapitalistaren zuzendaritza, Ingalaterraren eskutik, Ipar Ameriketara pasatu zen. Ondorioz, AEBetako Depresioak herrialde industrializatu guztietan izan zuen eragina; eragin

are gogorragoa AEBen ekonomiaren menpekotasunean bizi ziren lurraldeetan. Baina beherakada AEBetan bertan oso bortitza izan zen, eta aurreko oparotasun garaia zela eta min psikologikoa ere handia izan zen.

I.2. Depresioa sortzearen arrazoiak

Ekonomistak ez dira ados jartzen sorreraren arrazoiekin, baina orokorrean, hogeigarren hamarkadako oparotasuna oinarri ezegonkorren gainean eraikita zegoela onartzen da. Besteak beste, honako ahultasun estrukturalak aipatu izan dira:

-Ekonomiaren ahulezia handiena zen produkzio kapazitatea kontsumitzearena baino handiagoa zela. Izan ere, populazioaren zati handi batek (nekazariak eta beheranzko joera zuten industrien, ikatza, kotoia, oihalak langileak) oparotasun orokor hori ez zuen bizi.

-Diru-sarrerak gaizki banatuta zeuden. Irabaziak eta dibidenduak soldatak baino azkarrago igo ziren eta zerga-politikak aberatsen alde egin zuen. 1929an populazioaren %5ak diru-sarreraren herena jasotzen zuen. %71ak urteko 2500 dolar baino gutxiagoko diru sarrerak zituen, eta kopuru hori gutxieneko erosotasun bat izateko beharrezkoa zen. Herria lehen baino egoera hobean bizi zen baina produkzio masiboa mantentzeko tokatzen zitzaion artikulu kopurua erosteko ez zen gai.

-Banku independente kopuru handia zegoen (1921ean 30 000 baino gehiago) eta askok aktibo mugatuak zituzten. Arautze ezegokiagatik, zuzendaritza ezgaiaren eta iruzurrezkoaren eta beste arrazoi askoren ondorioz banku askok gehiegizko ahultasuna zuten.

-Inbertsio *trusten* eta *holdingen* ugaltzeak eskrupulurik gabeko promotoreak ekarri zituen, eta horiek konpainien irabaziak nahaspilatzeke joera zuten.

-Kanpo-merkataritza eskasa zen. AEBek asko esportatzen zuten baina bertako arantzelen ondorioz erosten zuten lurraldeek maileguak behar zituzten erosketa aurrera eramateko. Orduan AEBk kredituak murrizten bazituen (1928an gertatu zen bezala) esportazioek sufritu egiten zuten.

-Epekako salmentaren sistemaren hedapenak erosteko ahalmena mantentzen zezaketen denbora batez, baina ez betirako.

-Erretserba Federalaren Sistemaren interes baxuak eta diru merkearen politikak kreditu indiskriminatuak bultzatzen zituen.

Ahultasun estruktural horietako bakoitzean alterazio ekonomiko bat dago inplizituki. Osotasunak azaltzen du depresioaren laztasuna; eta konponbideen izaera ezegokiak denbora luzez irautera eraman zuen. 1929 aurretik, jada, ekonomia ondo ez zihoala erakusten zuten gertaerak jazo ziren, baina aberastasunaren ilusioak pixka batean iraun zuen.

Burtsaren merkatua indartsu zegoen eta jendeak mania espekulatiboa hartu zuen. “Azkar aberastearen” atmosfera hedatu zen, baina orokorrean ez zegoen burtsan jokatzeko esperientziarik. Akzioak ausarkeriaz erosten ziren, eta horrek,

akzioak ordura arte ezagutu gabeko prezioak izatera eraman zituen, 1927tik 1929ra ohiko akzioen prezioak %300ean igo ziren. 1929eko udazkenean merkatuak errealitatearekin zuen erlazioa guztiz galdu zuen; hori dela eta espekulatzailerik handi batzuk beraien ondasunak likidatzen hasi ziren. Irailaren erdialderako prezioak erori egin ziren eta Urriaren 24ean (Ostegun Beltza) behea jo zuten izuak jotako salmenta olatu baten ostean. Azkenik, urriaren 29an salmenten danbatekoa hasi zen. Hileetan zehar irabazitakoa ordu gutxi batzutan desagertu egin zen eta inbertsore txikiak eta handiak porrot egin zuten. Ondorengo hiru urteetan prezioak jaisten jarraitu zuten.

Balio industrialak:		Langabezia:	
1929ko urria	452	1930eko urria	4 milioi
1929ko azaroa	229	1931ko urria	7 milioi
1932ko uztaila	58	1932ko uztaila	12-15 milioi (pop. ¼) ¹

Wall Street-eko *cracka* beherakada ekonomikoaren hondamena izan zen. Enpreetan zegoen konfiantza desagertu egin zen eta bankarrotak eta porrot bankarioak gehitu egin ziren. Familiak etxeak eta ondasunak galdu zituzten, industriaren eta komertzioaren gorpilak progresiboki gelditzen joan ziren eta nekazaritza prezioak behin eta berriz erori ziren. Langabetuentzako laguntzarik ez zegoen AEBetan, Europako herrialde gehienetan bezala, eta irabazien ordainketak oso murrizak ziren, eta nekazal Hegoaldean ez ziren existitzen. Behartsuek zabor ontzietan bilatzen zuten janaria eta langabetuak soroetan ibiltzen ziren lan bila, edo ironikoki *hoovervilles* izeneko kartoizko txabola koloniak osatzen zituzten hirien kanpoaldeetan.

I.3. Hoover eta depresioa

1928an Hoover presidentetzarako hautagaiak, hauteskunde kanpainen pobreziaren desagerpena proposatu zuen, baina bozketak irabazi arren hurrengo urteko krisiak bere izen ona deuseztatu zuen. Izan ere, presidentek ekonomian parte hartu zuen beherakada ekonomikoari amaiera emateko asmoz. Patroiek langileen soldata mantenduko zutela eta kaleratzeak ahal dela ez zituztela egingo zin egitea lortu zuen; errepideetan, zubietan... gastu generala azkartu egin zuen; Nekazaritza Batzorde Federala eta elkarten bitartez alearen, kotoiaren... prezioa mantentzen saiatu zen, eta arantzelen kostuak altxatuz kanpo-konpetentzia gutxitzen saiatu zen. Baina, presio ekonomikoaren konponbidea industriaren eta komunitate lokalen kooperazio boluntarioan zegoela uste zuen. Langabetuen laguntza udal-gobernuen, federazioko estatuen eta ongintza pribatuaren esku egon behar zela errepikatu zuen behin eta berriro. Laguntza federalak aurrekontuak ez-egonkortuko zituela uste zuen, eta halakoak emanez gero laguntza publikoaren menpe biziko zen eta erresponsabilitate pertsonala galduko zuen gizarte talde bat sortuko zela zeritzon Hoover-ek, nazioaren zuntz morala apurtuz.

Baina hilabeteak pasatu ahala bere jarrera ezegokia zela agerian gelditu zen. Toki-gobernuak eta ongintza pribatua ez ziren gai behar adinako laguntzak

¹ (Jones, 1996: 418-419)

emateko. Hala ere Hoover-ek ez zuen porrota onartu. Herriaren arazoa ekonomikoa baino psikologikoa zela uste zuen, eta langabetuen kopurua minimizatu egin zuen oparotasuna azkar etorriko zela esanez; 1931ko udaberrian Presidenteari arrazoia emanez bezala produkzioa eta lana gehitzen hasi ziren. Baina beherakada berriro etorri zen Kreditanstalt banku suitzarraren bankarrotarekin. Horrek, mundu osoan finantzen krisia ekarri zuen, baina batez ere AEBetan. Egoera aldaketa horrek Hoover beste diagnostiko bat egitera eramane zuen, Depresioaren arrazoiak AEBetako mugetatik at seinalatuz.

Depresioaren hirugarren negura arte (1931-32) Hoover-ek ez zituen bere uste boluntaristak aldatu, eta orduan pixka bat bakarrik aldatu zituen. Ekainean esportazioak indartzen saiatu zen, Kongresuari plan bat proposatu zion enpresei laguntzeko eta 1932ko urtarrilean *Reconstruction Finance Corporation* (RFC) sortu zuen beharrezan zeuden banku, aseguru etxe eta beste instituzio batzuei laguntza emateko. Ekimen ezberdinen ostean finantza egitura finkatu zen baina ekonomia ez zen mugimenduan jarri. Dena galdu zutenek ez zuten ulertzen nola zen ona diru federala banku eta enpresa handiak salbatzeko erabiltzea, eta txarra gose zirenei jatekoa emateko erabiltzea. Azkenean Hoover-en izena miseria eta eskasiaren adjektiboa bihurtu zen.

Harrigarria da sufrimendu izugarri horren aurrean indarkeriazko protesta gutxi egitea. Toki batzuetan gose zirenak janari dendak hartu zituzten eta beste batzuek berriz grebalari edo langabetuek poliziarekin talkak izan zituzten. Baina protesta mugimendu orokor bakarra egon zen, IGNko militar langabetuek Washington-era egin zuten martxa, eta errepresioa latza izan zen.

I.4. Franklin D. Roosevelt eta lehenengo New Deal-a

1932an hauteskundeak egin ziren eta errepublikarren kandidatua Hoover izan zen berriro. Demokraten artean tirabirak egon ziren beren garaipena ziurtatuta baitzuten. Azkenean New York-eko gobernadorea, Franklin D. Roosevelt, izan zen hautagaia. Gobernadore garaian erreformista moderatuaren ospea irabazi zuen eta Depresioa iritsi zenean langabeziaren subsidioa eskatu zuen. Roosevelt-ek presidentea izatea onartu zuenean diskurtsoan “estatubatuarrei tratu berria” (*New Deal*) eman behar zitzaizela esan zuen. Baina, inoiz ez zuen azaldu tratu hori eta kanpaina zertan oinarritzen ziren, batzutan Hoover-en kontserbadorismoa errepikatzen zuela dirudi. Demokraten programak ez zuen alde gehiegi errepublikarrenarekin, ezberdintasun nagusia lege lehorra ezeztatzeko asmoa zen. Demokratek garai latzen errua Hoover-i bota zioten eta Roosevelt-en estatu guztietan irabazi zuen, seitan izan ezik.

Hauteskundeetatik Roosevelt-ek boterea lortu zuenerako lau hilabete igaro ziren eta ekonomia berriro erori zen bortizki. Bankuak ixten hasi eta banka krisia hasi zen. Presidente berriak esku hartze txiki eta egokiekin bankuen itxiera aldarrikatu zuen. Horrela, banku guztiak kontrol federalaren azpian ezarri eta herritarrei aurrezkiak bankuetan sartzeko gomendatuz krisia bukatu zen. Ehun Egunak izeneko garaia orduan hasi zen, hau da, aktibitate frenetikodun garaia.

Botere aldaketa eta ekonomiaren krisia gaitzeko Roosevelt-ek New Deal izeneko politika berria aurkeztu zuen. Horren ezaugarria zen ez zela ezin teoria

ekonomikotan oinarritzen: ez zuen plan koordinaturik eta kontradikzioz beteta zegoen, helburua kapitalismo estatubatuarra salbatzea izanik. Politika berriak gastu publikoa izugarri handitu zuen eta kanpainan aurkeztutako aurrekontua ez zuen bete. Baina, Roosevelt-en lana ez zen berria, Hoover-en gobernuak hasitakoarekin jarraitu zuen; ezberdintasun nagusia langabetuen subsidioa erresposabilitate nazionala zela baieztatzea izan zen.

Hauek izan ziren Roosevelt eta New Deal-aren erabaki nagusiak:

-Bankuen erreforma: porroten kontrako garantiak hobetu egin ziren, Estatuak kapitalaren zati baten jabe izatea ezarri zuen.

-Dolarraren debaluazioa: ekonomia suspertzeko neurria izan zen. Prezioak igo eta inflazioa etorri zen, baina egoera ekonomikoa hobetu egin zen. AEBetako artikulua kanpoan konpetenteagoak egin ziren, baina barneko prezioak erori egin ziren.

-Kreditu bigunak eman etxebizitzak eraikitzea edo erostea errazteko, bizitza kalitatea igoz. Superproduktzioa zegoen eta gobernuak lurrak ez lantzeagatik,... dirua ematen zien nekazari. 1935erako irabaziak bikoiztu egin ziren, baina lehorteek eta hondar ekaitzek eragin handiagoa izan zuten AAAk baino. Irabazien gehiengo nekazari handiek jaso zuten.

-*Conservation Civil Corps* (CCC), langabetuak lan publikoan enplegatzeko, horrekin batera *Public Works Administration* (PWA) sortu zuten lan publikoa administratzeko. Errepideak, eskolak, etxebizitzak, zubiak, juzgatuak... egin zituzten.

-*National Industrial Recovery Act* sortu zuten produktu industrialen prezioak arautu, lan orduak gutxitu, soldata minimoak erabaki eta lanpostu ugari sortzeko. Praktika monopolistak bultzatu eta sindikatuak indartu zituzenez Auzitegi Gorenak baliogabetu egin zuen.

Tennessee Valley Authority New Deal-aren proiektu handiena izan zen. 1916an haranean presa handi bat eta munizio planta bi eraiki ziren, baina plan honek haraneko errekurtsio energetikoak ez zituen guztiz garatu. Harana zazpi estatuk osatzen zuten eta zeharo atzeratuta zegoen. Presak industrializazioa ahalbidetu zuen. Presak, ureztaketa sistemak, hezkuntza eta aisialdi programak... aurrera eraman zituen proiektu horrek.

1.5. New Deal-ari kritika

Roosevelt-ek gehiengoaren laguntza izan zuen hasiera batean, baina krisia baretu zenean kritikak hasi ziren. *Tratu berria* gehiegi sartzen omen zen ekonomian. Askatasunerako Liga Amerikarra sortu zen, partaideak negozio gizon aberatsak ziren eta goi kargu demokrata batzuen laguntza zuten; New Deal-ak enpresa libreen sistema mehatxatzen zuela zioten.

Tratu berriak hobekuntza partzial bat besterik ez zuen lortu, okerren zeuden taldeek ere, nekazari txikiak, partzuerrak, agureak,... ez zuten etekinik izan. New Deal-a sozialismoarekin eta komunismoarekin ere lotu zuten. Panazeak eskaintzen zituzten taldeak ere agertu ziren: Francis E. Townsend mediku

kaliforniarrarena, Charles E. Coughlin apaiz katolikoarena eta Louisiana-ko Huey P. Long-ena ziren nabarmenenak. Roosevelt-ek AEBetako senatua bere alde zuen 1931an, baina azkenean senatua kritika gune gogorra bihurtu zen.

I.6. New Deal-aren bigarren fasea

1934an kongresurako hauteskundeetan progresistak indartu egin ziren, 1935 hasieran Auzitegi Gorena New Deal-aren neurri batzuk baliogabetzen hasi zen, eta ekonomiak oraindik geldirik zirauen. 1935ean Roosevelt-ek bira taktiko bat eman, eta emaitza lege multzo uholde berri bat izan zen, historialari batzuk Bigarren New Deal-a deitzen diotena. Bigarren tratua erradikalagoa da, erreforma sozial eta ekonomikoa eta gutxien dutenen aldekoa. Aurreko tratuaren jarraipenak zeuden eta kapitalismoa zaintzeari garrantzia eman zioten. Roosevelt emaitzak jasotzen hasi zen, *Work Progress Administration* sortu zuen, ondoren *Work Projects Administration* (WPA) bihurtuko zena. WPAk langabezia gutxitu nahi zuen, horretarako proiektu ezberdinak martxan jarritz. Proiektu hauen artean, egitasmo bitxiak ere bultzatu ziren, halanola lan gabeko artista, musikari, idazle eta aktoreei laguntzeko sortutakoak.



1. Irudia: Ben Shahn, *Kotoi biltzailea*, Arkansas, 1935

1935ean *Social Security Act* sortu zen, zahartzaroko derrigorrezko pentsio sistema nazionala eta langabezia sistema federal-estatala biltzen zituen. Puntu askotan lege akastuna zen, baina berrikuntza ugari ekarri zuen. Uztailean laneko harremanen legea irten zen eta martxan jartzeko *National Industrial Recovery Act* baliogabetu zuten.

Idea Robert Wagner senatorearena izan zen, Wagner legeak sindikatuei eta sindikatutakoei lagundu zien. Laneko Harremanen Batzorde Nazionala sortu zen, eta hola, harreman industrialetan, gobernuak zuen papera, sindikatuen boterea eta afiliazioa handitu egin ziren.

1936ko demokraten biltzarrean Roosevelt aukeratu zuten berriro, plataforma errepublikarrak kongresuaren boterea zurrupatzea, estrabagantziak egitea eta Washington-eko boterea zentralizatzea egotzi zion. Hauteskundeetan errepublikarrek ez zuten Roosevelt-en mailan egoteko aukerarik eta presidente ohiak inoiz ezagutu gabeko aldearekin irabazi zuen, bi estatutan izan ezik gainerako guztietan. Horrela, erreforma garatzeko beste mandatu bat zuen.

Mandatu hori antiklimax bat izan zen, lorpen legegileak iharrak izan baitziren eta Roosevelt-en posizioa jaitsiz joan baitzen.

I.7. New Deal-aren gainbehera

1937ko eta 1938ko bi gertakizunek Roosevelt-en autoritatea gehiago apaldu zuten: gatazka industrialaren berpiztea eta ekonomiaren bat-bateko beherakada. Sindikatzeke atmosfera ezin hobea zen, baina sindikatuetan barne arazoak eta patroiekin arazoak zeuden. Lanaren Federazio Amerikarreko buru gehienek eskulangileen sindikatuak nahi zituzten, eta produkzio handietako industrien kualifikatu gabeko soldatapekoak antolatzeko asmorik ez zuten erakusten. 1935ean buruzagitza sindikalaren gutxiengo batek *Committee of Industrial Organization* eratu zuen, horiek industria bakoitzeko langile guztiak bilduko zituzten sindikatuak nahi zituzten. Bi urte beranduago, Lanaren federaziotik bota ostean *Congress of Industrial Organizations* (CIO) finkatu zuten. John Lewis *United Mine Workers*-eko buruzagia aurrean zutela CIOk kanpaina indartsu bat hasi zuen altzairu, auto, beira, kortxo eta beste eskala handiko produkziodun industrietako langileak antolatzeko. 1937aren bukaeran CIOk Lanaren Federazio Amerikarrak baino afiliatu gehiago zituen. CIOren kanpainak eta derrigorrez sindikatzeke eskaerak aurkaritza gogorra izan zuen, baina Presidente ez zuten kontra. Lanaren Federazio Amerikarreko sindikatu batzuk estortsionatzaileen gidaritzapean eta CIO herrikoiak komunistek kontrolatzen zituztela azaltzen zuten frogak agertzean klase ertaina eta laguntza publikoa sindikatuetatik irteten hasi ziren, baita New Deal-aren babesleak ere.

1937ko uda bukaeran ekonomia berriro erori zen bat-batean, horrela, lau urteko berreskurapen industrialak jaitsi, baloreen merkatua erori eta langabezia berriz igo egin ziren. Roosevelt aurrekontua apaltzen saiatu zen gastu federalak drastikoki murriztuz, baina horrek ekonomia atzeraka bideratu zuen. Defizitaren finantziario sistematiakoarekin oparotasunera bueltatu nahi zuten, horrela, kongresuak subsidio eta lan publikoetarako asignazio handiak onartu zituen eta 1938ko udan ekonomia berriro hasi zen poliki-poliki igotzen. Baina gobernuak zuen konfiantza gutxituz zihoan.

1937an Roosevelt-ek kongresua beste erreforma bat egiteko konbentzitu zuen:

-*Farm Security Administration*: errentari eta partzuerrei etxaldeak erosteko kredituak emateko.

-*Federal Housing Administration*: auzo txiroak erroto kendu eta laguntza federala emateko.

-*Agricultural Adjustment Act* bere aurrekoa 1933an baliogabetu zuten. Nekazaritza prezioak egonkortzen ahalegindu zen.

-Lan-arau egokiei buruzko legea: soldata minimoa eta lan-ordu maximoa ezarri zituen eta estatuen arteko merkataritzan haurren lana debekatu zen.

Roosevelt-ek alderdi demokratikoa zeuden New Deal-aren aurkakoak bota zituen. Primaria demokratikoa eskua sartu zuen eta hegoaldeko boto emalerei

kontserbadoreak baino liberalak aukeratzeko esan ziren. Baina berak aurka egin ziren kandidatuek irabazi zuten. 1938ko kongresurako hauteskundeak kolpe handiagoa izan ziren. Demokratek ganbara biak kontrolatu arren errepublikarren irabaziak harrigarriak izan ziren lehenengo aldiz 1928az geroztik. Argi zegoen New Deal-aren xarma galtzen ari zela. Roosevelt-ek, kargua hartu zuenetik lehenengo aldiz, ez zuen erreforma berririk proposatu, eta horren ordez munduko bakearen mehatxua eta defentsa nazional baten beharra indartu zituen.

I.8. New Deal-aren irakurketa erretrospektiboa

New Deal-aren jarraitzaile sutsuenek ere onartu beharra izan zuten berreskurapena partziala izan zela. 1939an ekonomiaren sektore batzuetan produkzioa 1929ko mailara iritsi zen. 1941ean etorri zen oparotasuna eta lana, II. Mundu Gerra eta horrek eragindako mobilizazio militar eta ekonomikoaren ondorioz. Baina ordura arte, *tratu berriaren* neurri batzuk min handia egin zuten; nekazaritza-politikak ez ziren nekazari prekarioenei lagundu eta ongizate sozialaren programa oso eskasa izan zen.

Akats eta muga asko izan arren New Deal-ak kontsentsu nazionalaren zati bihurtu ziren lorpenak izan zituen. Ongizate estatuaren oinarriak jarri eta harreman industrialetarako estruktura legala ezarri zuen; baloreen merkatuaren eta bankuen gainean kontrol zehatzak ezarri zituen; eta gobernuak ekonomia erregulatzeko erresponsabilitatea zuela esaten zuen printzipioa ezarri zuen. New Deal-ak gobernu federalaren papera handitu zuen eta kapitalismo estatubatuarrari izaera gizatiaragoa eman zion. Aberastasuna banatzeko ezer egin ez arren, kapitala eta sindikatuaren arteko boterea banatu egin zituen. Gutxiengoek garrantzia hartu zuten: Roosevelt-ek postu federaletarako katoliko, judu, beltz eta emakumeak izendatu zituen ordura arte ezagutu gabeko kopuruetan.

Roosevelt-ek kargu presidentziala prestigio eta boterearen maila berri batera altxatu zuen. Presidentearen funtzio legegileak handitu zituen eta prentsaurrekoak sartu zituen. Etxe Zuria bizitza nazionalaren zentroa egitean, geroko arazoan hasia erein zuen.

I.9. Depresioaren garaiko gizarte estatubatuarra

Estatubatuarren egoera txarra izan arren, depresioaren bost urte okerrenetan (1929-1933) gosez 110 biztanle baino ez ziren hil (konparazio baterako: 1920-21ean, Sobietar Batasunak krisi ekonomiko larri bat jasan zuenean, bertan milioika hil ziren). Hala ere, posible da AEBetan goseak kopuru handiago baten heriotzarekin zerikusia izatea. 1935ean hogeit hamar milioi pertsonak ondo elikatzeko beharrezko zena ez zuela kalkulatu da. Horren eraginak ez ziren agerian gelditu 1940an beharrezko zerbitzu militarra ezarri arte, lehenengo errekluta taldeak erdia kanpoan gelditu baitzen osasun arazoak tarteko. Hala ere, hilkortasun tasa jaitsiz joan zen, batez ere, antikoagulanteen eta sulfamiden aurkikuntza eta erabilpenari eta erditzearen ondoriozko hilkortasun tasa jaisteari esker.

Populazioaren hazkuntza jaitsiz zihoan jaiotza naturalaren eta inmigrazioaren jaitsieraren ondorioz. Depresioaren lehenengo urteetan ezkontza

tasa nabarmenki jaitsi zen, baina 1935erako berreskuratuta zegoen; jaiotza tasa ere jaitsiz zihoan. Jaiotza tasaren jaitsieraren arrazoietakoa bat kontrakontzepzioaren edo aitasunaren planifikazioaren hedakuntza izan zen. Jaiotza kontrolaren aurka zeudenen kopurua gutxitu egin zen. 1936az geroztik kontrakontzepzioaren informazioa eskuragarriagoa zen. 1929an jaiotza kontrolaz arduratzen ziren 28 klinika bakarrik zeuden, 1941ean berriz 746.

1920ko hamarkadan inmigrazioak lau milioiak pasatu zituen, 1930ean berriz erdira gutxitu zen. Hori kuota sistemaren ondorioa izan zen batez ere, urte batzutan herrialdetik irten zirenak sartzen zirenak baino gehiago zirenak eta. Garai honetan heldu ziren erdiak naziengandik ihes egindako errefuxiatuak ziren, asko goi mailakoak: Albert Einstein, Bauhaus Walter Gropius... Errefuxiatu gehiago ez etortzearen arrazoiak kongresuak langabezia izugarria izatean kuota sistematik irteten zen errefuxiatuen kopurua ez onartzea izan zen.

Depresioak behe mailan eragina izateaz gain, klase ertainarengan ere izan zuen eragina. Askok lana, aurrezkiak eta segurtasunaren zentzua galdu zuten. Milaka enpresak porrot egin zuten eta unibertsitateko ikasle askok ikasketak utzi beharra izan zituzten.

Depresioaren eragin harrigarrienetako bat nomadismoa izan zen. Momentu konkretu batean bost milioi ibiltari egon ziren, lan bila edo asperralditik eta desesperaziotik ihes egin nahian. Noraezean zebiltzanen laurden bat gazteak ziren, eta New Deal-aren *National Youth Administration*engatik izan ez balitz kopurua askoz handiagoa izango zen. 600 000 bat unibertsitariori eta bigarren hezkuntzako 8 milioi ikasleri egun erdiko lanak eman zizkien; horrela ikasten jarrai zezaketen eta merkatutik at zeuden.



2. Irudia: Arthur Rothstein, *Umea dandari lana ikasten*, Radolph County, West Virginia, 1941eko abendua.



3. Irudia: Jack Delano, *Irtetear dauden langile migratzaileen prestaketa*, Ipar Karolina, ca. 1940

Landutako lurren gutxitzeak eta traktoreen erabilerak nekazari familia asko Kaliforniara bidean jarri zituen jornalari emigrante bihurtuz.

Depresioak beltzengan eragin izugarria izan zuen, IGNko aurrerapen guztiak ezabatu ziren. Iparraldeko hirietan langabezia zurien bikoitza zen. Hegoaldean gehienak kotoiaren menpe bizi ziren, eta hori gehien kaltetutako landarea izan zen. Tratu Berriaren nekazaritza politikak diskriminatu eta beraien miseria ekarri zuen. 1935ean familia beltzen %30a laguntzen menpe bizi zen. legeak diskriminatu egiten zituztenez laguntza praktikoak eta sinbolikoak (gobernuko postuak) eman zizkieten. Indioen egoera ere ez zen hobea, 20. hamarkadan egoera txarra zen eta depresioarekin okerrera egin zuten. Erretserba isolatuetan, lur txarretan, tuberkulosiak, trakomak, eta abarrek jota zeuden. Hoover indioen ongizateak kezkatu egiten zuen eta 1929-1932 artean gastu publikoa gutxitu arren indioentzako laguntza bikoiztu egin zuen. Roosevelt-ek indioentzako Tratu Berri berezia egin zuen, lur komunalak, autogobernua... Baina zatikako ospea bakarrik izan zuen, destribalizazio prozesua ez baitzen gelditu eta kultura gabe eta alkoholismoak jota baitzeuden.

Aberatsengan depresioak eragin murriztagoa izan zuen. Burtsaren erorketatik “bizirik” irten zirenak, gehienak, legala zen ebazio fiskal sistematikoaren bidez beraien aberastasuna mantendu zuten. Enpresari milioidun batzuk aberastasuna gehitu egin zuten, adibidez, J. P. Getty-k eta Joseph P. Kennedy-k. Populazioaren %5a berdin bizi zen eta kontsumoa eta filantropia mantendu egin ziren. Emale handiek sorospen konpainiei laguntza emateaz gain proiektu ezberdinetan parte hartu zuten: Artearen Museo Metropolitanoa, Maine-ko Acadia eta Wyoming-eko Grand Teton parke naturalen garapena, Washington-eko *National Gallery of Art*... garai honetakoak dira.

Depresioaren lehenengo urteetan hezkuntza aurrezteko modu bat izan zen, gastuak %70ean gutxitu ziren. Jaiotza tasa erortzean eskola asko itxi egin ziren, baina umeen kopurua gehitzen joan zen heinean 900 eskola publiko eraiki ziren. Unibertsitateak aldiz kolpe latza jaso zuen.

Askok pentsatzen zuenaren aurka jendeak ez zuen erlijiora jo. Elizara joatea eta eliztar izatea eroriz zihoan. Kultu batzuk bakarrik mantendu ziren, adib. muturreko fundamentalismodun eliza protestanteak, edo auzo behartsuenetan sekta milenaristak.

Depresioak delituak handitu egin zituen, 30. hamarkadan presoak %40an igo ziren. Propietateen aurkako delituak nabarmenki igo ziren, baita mozkorrenak eta bahiketenak ere.

Garai latzak izan arren aisialdiak gorakada izan zuen. 1929 eta 1933 artean liburutegietan zirkulazioan zegoen liburuen kopurua %40an igo zen. Jendeak autoa denbora gehiagoz mantentzen zuen baina udan errepidea autoz betetzen zen. Irratiaren ospea handitu egin zen eta zineak hasiera batean behera egin arren errealitateak ihes egiteko bide egokia bihurtu zen. Ihes egiteko nahia zen gai nagusia literaturan. Protesta sozialak gutxi ukitzen zituzten, horietako adibide bat John Doss Passosen *USA* trilogia da. Orokorrean beste gai batzuk hartzen ziren, Ernest Hemingway horren agerkizun izanik. Gizarteari erromantze historikoak gustatzen zitzaion gehien, Margaret Mitchell-en *Gone With the Wind* da horren adibide ezagunenetako bat.

II. Argazkigintzaren garapena

II.1. Argazkigintza errealitatearen isla gisa

XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren lehen urteetan esplotazioan eta AEBko biztanleen giza egoeretan oinarritutako dokumentu fotografikoak jasotzen hasi ziren zenbait argazkilari, Jacob Riis eta Lewis Hine esate baterako.

Riis izan zen 1890.eko hamarkadan egoera hauen irudiak jasotzen lehena, New York-eko auzo pobreetan barneratuz. New York-eko *Tribune* egunkarian lan egin zuen eta honetaz baliatuz auzo marjinaletan bizi ziren etorkinek jasaten zuten esplotazioa eta gabezia larria salatu zuen. Gainera, idatzitako testuetan mundu hobe bat lortzeko esperantza islatzen zuen.

Lewis Hine-k esplotazioa beste ikuspuntu batetik aztertu zuen. Etorkizunera begiratzen zuten argazkiak atera zituen, momentuko eskasia erakutsiz. Adibidez, bere argazkietan askotan lantegietako langile ziren umeak ikus daitezke; hauek, sistema ezegoki baten biktimak, baina era berean mundu hobe baten sinbolo gisa azaltzen dira. Hine-k CNTI-n (Haurren Lanaren Batzorde Nazionalen) lan egin zuen. Elkarre hain umeen lan-esplotazioa bukatu nahi zuten biztanleek sortu zuten 1904an. Hine zenbait aldizkaritan ere aritu zen, ikerketa soziologikoetan laguntzen adibidez; baina umeen lanaren inguruko ikerketak sakondu zituen batez ere. Ellis Island-eko etorkinen argazki ugari ere egin zituen, bai bere lehen urteetan eta baita gerra ostean ere. 1932an *Men at Work* liburua argitaratu zuen, gizaki moderno eta makinari buruzko estudio bat, lanaren benetako izaera islatu nahirik. Hasieran gai guztiz berri bat landu bazuen 30. hamarkadan beste hainbat artisten artean bat gehiago bihurtu zen eta askok bere lanari zaharkitua iritzi zioten.

1929ko *crackaren* eta Depresio Handiaren ondorioz makinaren aurkako susmo eta mesfidantza handitu zen, egoera horren eragile gisa ikusten baitzen. Makinaren eta lantegiaren zorigaitzoko eraginari aurre egiteko erantzun berriak behar ziren; horrela, 30. hamarkadan dokumentu pastoral antzekoak sortu ziren bizitza era tradizionalak erakusten zituztenak irudi bukoliko eta arkadiarrekin. Baina gauza guztien gaineratik gizabanakoen erretratuak ziren, mundu tradizionalaren aurpegi indibidualak.

AEB aurrera ateratzeko politikaren barnean artisten lana ezinbestekoa izan zen, politika berriak literatura, pintura, argazkigintza eta filmeen bidez zabaltzeko eta ezagutzera eman baitziren. Horrela, 1935ean Franklin D. Roosevelt-ek *Resettlement Administration* (RA) (Berrezarpen Administrazioa) izeneko erakundea sortu zuen Depresioari aurka egiteko saiakeren artean eta landa edo baserri-munduaren arazoez arduratzeko. Interes baxuko maileguak ematen zituzten, landen berreskurapena indartzeko aholkuak ematen zituzten eta nekazari herrien sorrera bultzatu zuten. Hemen informazio sail bat sortu zen, “Sekzio Historikoa” deiturikoa, argazkigintza proiektuaz arduratu zena. Sekzio hau 1937an Nekazaritza Departamendura pasatu zen eta *Farm Security Administration* (FSA, 1937-1942, Baserri Segurtasunerako Administrazioa) izena hartu zuen. Azkenik, 1942an *Office of War Information* (Gerra Informazioko Bulegoa) bihurtu zen. Hiru

erakunde hauetan argazkilaritza proiektua mantendu zen eta bilduma oso bat gordetzen da. Amerika amerikarrei erakustea zen helburua, biztanle guztien laguntza beharrezkoa zelako eta argazkien bidez jendearen begiak irekitzea bilatzen zen; New Deal-aren aldeko propaganda modu bat bezala ikus daiteke. Bilduma honek baditu ere gobernuko beste erakunde batzuetan eta gobernuz kanpoko erakundeetan ateratako argazkiak. 1944an Kongresuko Liburutegira eraman zuten.

Hasiera batean proiektu honek RA-k baserritarrei emandako diru laguntzak eta hiringuruko komunitateen eraketak ilustratzen zituen. Bigarren fase batean Hegoaldean maizterren bizitza eta Mendebaldeko baserritarren migrazio mugimendua aztertzen zituen. Azkenik, proiektua zabalduz joan zen heinean, baserri munduaz gain hirietako kondizioak eta Bigarren Mundu Gerraren ondorioz egon zen mugimendua ere erretratatu zuten².



4. Irudia: Howard R. Hollen, *Emakume errematxatzailea lanean*, Texas, 1942

FSAn egin ziren argazkilaritza lan aberats eta ezagunenak. Nekazaritza Departamenduko aholkulariak, Rexford Tugwell-ek, 1935ean nekazal guneei buruzko txosten ilustratu bat egitea erabaki zuenean Roy Stryker-i eskatu zion proiektuaz arduratzeko eta honek, denborarekin, argazkilaritza talde handi bat kontratatu zuen. Lehendabizi Arthur Rothstein kimikari eta argazkilaritza zientifikoa, gero Carl Mydans, RA-n parte hartutakoa, Walker Evans eta Ben Shahn ilustratzaile eta margolaria elkartu zituen, eta azkenik Dorothea Lange sartu zen. Europan ez dago FSAn antzeko ezer; baina produktu guztiz amerikarra izan arren argazkilaritza asko emigranteak ziren, esate baterako Jack Delano ukrainiarra, Theo Jung austriarra, Ben Shahn lituaniarra. Jatorri horrek, izatez proiektuaren ikuspegi dokumentalari lagundu zion, zeren inoiz aipatu denez, kanpotar batek ezin du ekidin mundua lilurarik gabeko objektibitatez ikustea.

² Argazkigintzaren zatia egiteko batez ere Jeffrey-ren *La Fotografía* liburua erabili dugu, biografiak eta tartekatutako zenbait informazio izan ezik. Kasu honetan <http://memory.loc.gov/fsahtml/fabout.html> web orrira jo dugu.



5. Irudia: Carl Mydans, *Emakumea ehuna egiten*, Crossville, Tennessee, 1935

FSAko argazki hauek Nekazari Saileko liburuxketan eta prentsan argitaratu ziren. 1937an, sortu berria zen *Life* aldizkarian, gai honen inguruko zenbait artikulu idatzi ziren, Lange, Shahn eta Rothstein-en argazkiekin batera. 1938an FSAko argazkilariak landa-munduko argazki baikorragoak ateratzen hasi ziren, hasierako programa zabalduz eta gaia gizartea bere orokortasunean bihurtuz. Hegoaldeko argazkiez gain hiri eta industrien irudiak jasotzen hasi ziren. Garai honetan taldean beste partaide batzuk sartu ziren: Marion Post Walcott, Jack Delano, John Vachon eta John Collier.

Argazkilariak AEBn zehar eta Puerto Rico-ra bidaltzen zituzten, baina bulego zentrala Washington-en zegoen. Bulegoak beharrezko tresnak eman, garraioa alokatu, beharrezko langileak kontratatu, argazkiak errebelatu, negatiboak zenbatu eta argazkiak inprimatzen zituen beste gauza askoren artean. Gainera, irudiak aldizkari, egunkari eta liburu argitaletxeetara bidali eta erakusketak antolatzen zituzten.

Gai eta gune zehatzak aztertzeko eta lantzeko eskatzen zieten, pare bat hilabetetakoak izan ohi ziren bidaietan. Stryker-ek oso instrukzio zehatzak ematen zituen eta argazkiak ateratzen hasi baino lehen gaiaren inguruko jakintza hobetzeko liburuak, egunkariak eta erreportaiak irakurtzera behartzen zituen. Lanean hasi aurretik ere oinarrizko gidoi bat prestatzen zuten askotan eta jendearekin kontaktuan jartzeko eta entrebistak egiteko trebatuak izaten ziren. Normalean negatiboak Washington-era bidaltzen zituzten. Hasierako urteetan Stryker arduratzen zen argazkiak aukeratzeaz eta inprimaketa ikuskatzeaz, baina denborarekin argazkilariak argazkiak aukeratzeko askatasun gehiago izan zuten.

Bilduma honek zuri-beltzeko 164000 argazki eta koloretako 1600 jaso zituen. Koloretakoek Bigarren Mundu Gerrako mobilizazioa, hegazkinen eraiketa, militarren entrenamenduak eta trenbideak erakusten zituzten batez ere; baina ez ziren zuri-beltzean zeudenak bezain ezagunak eta ugariak.³

³ Azken hiru ahapaldietako informazioa: <http://memory.loc.gov/ammem/fsahtml/fabout.html> .



6. Irudia: Fenno Jacobs, *Umeak eszenatokian erakustaldi patriotiko batean*, Southington, Connecticut, 1942

Argazkilari talde zabal hau baserritarren isolamendua islatzen saiatzen zen askotan, hauen arazoaren oinarria kontsideratzen baitzen isolamendua. Galdutzat emandako pertsonen erretratuak egin behar zituzten eta nahiz eta nekazari munduaren eskasiaz arduratu batez ere, honek beste maila sakonagoetara eramaten zituzten. Arraza diskriminazioen aztarnak jasotzea nahi zutela esplizituki dioen dokumenturik ez da aurkitu, baina bildumak gai honen inguruko irudi asko erakusten ditu, segidan ikus daitekeenez.



7. Irudia: Esther Bublely, *Greyhound-eko autobus geltokian jendea zain*, Tennessee, 1943

Gizartearen alde ezkorrena erakusten zuten irudiak *You Have Seen Their Faces* (beraien aurpegiak ikusi dituzue) liburuan iritsi ziren maila gorenera, Erskine Caldwell-ek idatzia eta Margaret Bourke-White-n argazkiekin. Proiektu honek, ordea, ez zuen zerikusirik FSArekin. Hegoaldeko egoera aztertzen zuen, Tennessee-tik Alabamara, baina bertako irudiek FSAko argazkietatik bereizten diren umore berezi bat dute, askotan karikatura antzerakoak bihurtzen direlarik. Liburu ironiko bat da eta askotan irudi zoriontsu topikoen parodiak egiten dira. FSAko erreportariak ezin zuten horrelako gehiegikeriarik egin gobernurako lan egiten baitzuten eta presio politikoen menpe zeuden; ondorioz, beraien argazkiak

orokorrean Bourke-White-nak baino inperpersonalagoak dira. Aipatutako ironia puntua erakusten duten notatxoez lagunduta daude (ikus ondoko irudia).



8. Irudia: Margaret Bourke-White, *Enkantea zuzentzen duenak hain azkar hitz egiten du gizon beltzak ez dakiela bere tabako uzta zenbatean saltzen den*

FSAko argazkien estiloa errealismo eta modernismoaren artean kokatzen da. Alde batetik gizarteko egia gordina eta biluzia erakusten du, baina bestetik objetibitate berria deiturikoa erabiltzen dute, hau da, oso irudi geometrikoak: jakin bazekiten geometrikoki ondo antolatutako argazkiak komunikazio bide boteretsuak zirela. Argazki batzuetan txabolak, herri-elizak, biltegiak eta bestelako lekuak besterik ez dira agertzen, baina naturaren anabasari orden bat ematen diote beraien forma geometrikoekin. Jack Delano-k adibidez forma errektangularrak gainjartzeko abilezia zuen. Walker Evans-ek ere aspektu honi buruzko gogoeta egin zuen eta argazki askotan espazio beteak (gelak, biltegiak, bizartegiak) erretratatzeko zuten, eguneroko bizitzako detaileen aniztasun eta aberastasuna erakusten zutelarik (Calado, 2000:16 eta 26), ondoko argazkian adibidez:



9. Irudia: Walker Evans, *Barrualdea*

Argazkietan azaltzen den Amerika era inprobisatuan hazten dagoen herri bat da. Zailtasun handiko garai hauetan Agindutako Lurraren ideiek bizirik jarraitzen dute eta argazki hauetan amerikarren bizitza erakutsiz iragarritako promes hori salatzen dute; erreal eta idealaren arteko lotura argi eta garbi ikus daitekeelarik. Zenbait iruditan amerikarren egoera latzaren atzean hitz hau sinbolizatzen duten publizitateko panelak agertzen dira eta benetan efektu hunkigarria sortzen du, pobrezia larriaren eta gizarte kontsumista baten konbinaketa ikusten baita.

Kritikak eta eztabaidak laster hasi ziren, argazkiek izaera dokumentala izateaz gain metafora gisa uler baitzitezkeen eta garai horretan konnotazio politikoak nonahi aurkitzen ziren. Kritika askok argazki arriskutsuak zirela uste zuen. Arthur Rothstein-en argazki batek (ikus 10. irudia) eztabaidak sortu zituen erakusketa batean eta heriotzari dei bat bezala uler zitekeela seinlatu zen. Metafora desberdinak ikusteko ondorengo adibideak egokiak izan daitezke: 11. irudia krisiari aurre egiteko egin beharreko itzeleko esfortzuaren isla eta 12. irudia etorkizuneranzko begirada izan daitezke. 1938an New York-en egindako erakusketa batean ere kritika gogorrak jaso zituzten eta ondorengo esaldiak entzun ahal izan ziren: *Erakutsi pribilegiatuak ez direnei ume eta miseria gutxiago izaten; Ez erabili zergen dirua filmeetan; Uste dut Hitler bat behar dugula; komunismoaren propaganda hutsa; Kiratsa dario; Argazki hauek ikusi ondoren pozten naiz New York hirian bizitzeaz* Kasuotan egokia litzateke egiak min egiten duela esatea.



10. Irudia: Arthur Rothstein, *Burezurra*, Badlands, South County, 1936



11. Irudia: Jack Delano, *Azukre zakuak*, 1940



12. Irudia: Carl Mydans, *Etxe segida baten baranda*, 1936

FSAk utzitako oinordetza ez da argazkigintzan soilik izan, soziologiko, antropoligiko eta emozionala ere bada. Emakumeek betetako papera eta jasan izan behar izan zutena erakusten du adibidez, heroien pare ikus daitezkeelarik. Lange-k zera esan zuen: *Emakume hauek amerikar lurrekoak dira, arraza gogor bat, gure herrialdearen sustriak. Gure lautada, zelai, desertu, mendi, bailara eta*

herrietan bizi dira. Ez dira hainbeste zabaldu den bizitza estilo amerikarra; emakume hauek estilo desberdin bat ordezkatzeko dute. Gure ohituraren zati bat dira eta kemen handiz bizi dira. 13. eta 14. irudietan emakume eredu hauen adibide batzuk ikus daitezke.



13. Irudia: Jack Delano, *Morrison anderea*, Rumsey Hill-eko landetxe submarginal bateko nagusia, Erin, NY, 1940



14. Irudia: Arthur Rothstein, *Dodson anderea* bere bederatzi seme-alabetako batekin, Shenandoah-eko parke nazionala, Virginia, 1936

FSaren mugimendua, benetako argazkigintza eskola izana, ez zen 1945ko gerraren garaipenarekin bukatu; bere estiloak literatura eta zinean eragin handia izan zuen eta AEBko argazkigintzan marka sakona utzi zuen.

Stryker-ek 1972an, bere bizitzaren bukaera aldera, *In this proud land* izeneko liburu bat argitaratu zuen FSAko berrehun argazkirekin. Bere ustez proiektu honetatik atera beharreko egia jende gehiena bizirik atera zela da, beldurra eta galerak alde batera utzi eta indarrez Depresioari aurre egitea lortu zutela⁴.

Ondoren FSAn aritutako argazkilari nabarmenenak banan aztertuko dira.

II.2. Walker Evans⁵

Maila oneko familia batean jaio zen St. Louis-en 1903an. Literatura eta hizkuntzak ikasi zituen Andover-eko *Phillips Academyn* eta Williamstown-eko *Williams Collegen*. New York-era joan zen bizitzera eta Parisen egonaldi batzuk ere egin zituen, non argazkiak ateratzen hasi zen. Argitaratutako lehen argazkiak Brooklyn-eko zubiarenak izan ziren, Hart Crane-n *Zubia* poema ilustratzeko eginak 1930ean.

⁴ Azken lau ahapaldiak: Calado-ren lanaren (2000) 24, 26, 28, 30 eta 32. orrialdeetan

⁵ Biografiak lantzeko argazkilari bakoitzari buruzko web orriak erabili ditugu.

Gauzak ziren bezala erretratatu nahi zituen eta bere lanaren indarra horretan oinarritzen da. Irudi baten xehetasunek beste edozein planteamendu artistikok baino gehiago adierazten duela uste zuen. Askotan segundo edo momentu bikainaren zain orduak ematen zituen. Errebelatzeko erabiltzen zuen metodo eta materialaren kalitateak eta kamera atzean zuen teknika zehatzak bere lanak duen indarra azpimarratzen du.

Berak erretratatuak dendetako apalak ikusirik auzoen beharrak zeintzuk ziren erakusten du. Nahiz eta pertsonen erretratuak ere egin, fama natura hilen irudien bidez lortu zuen: apalak, denden erakusleihoak, etxeetako hormak, etab.; aurretiko ikuspuntutik hartuta bizimodu bati buruzko collage esanguratsuak osatzen dituzte.



15. Irudia: Walker Evans, *Laborari baten etxeeko horma*, Alabama, 1936

Bere lan nagusia 1938an argitaratutako *American Photographs* izan zen. Lehen berrogeita hamar argazkietan gizarte estatubatuarraren azterketa egiten du eta gainontzekoetan gai nagusia arkitektura da. Bere inspirazio iturrietako bat Diego Rivera mural egile mexikarrak 30. hamarkadaren hasieran bitzta amerikarrari buruz egindako konposaketa piktoriko handiak izan ziren; gizarte industrialari buruzko analisi sakonak eta askotan kritikoak.

Evans-en AEBn bere protagonistak bakoitza bere ereduari egokitzeko prozesuan aurkitzen dira, beti ere irudi soziala kontutan hartuz. Irudien eragina etengabea zenez, ikusi eta ikasitako bitzta bitztea besterik ez zuten.

FSAn egin zituen urteak tentsioz beteak egon ziren, ez baitzituen eskatutako argazkiak bidaltzen eta askotan ez zekiten non zebilen. RA-rekin Pennsylvania eta Virginia Mendebaldean aritu zen eta FSArekin Hegoaldean. Stryker-ek bere lana gustuko zuen, baina ez zuen onartzen Evans-en eskema zehatz gabe lan egiteko nahia eta bere produktibitate baxua.

1936an Evans-ek *Fortune* aldizkarirako enkargu bat onartu zuen FSAREN baimenarekin. Evans-ek eta bere laguna zen James Agee idazleak hiru hilabete pasa zituzten Hale County-n, Alabama, nekazari maizter familia batzuekin erreportaia bat egiteko. Azkenean artikulua ez zuen *Fortune*-k argitaratu, baizik 1941ean *Let Us Now Praise Famous Men* (utzi orain gizon famatuak goستن) atera zen. Proiektu hau bukatzea prozesu nekagarria izan zen batez ere Agee-ren perfekzionismoa zela eta; Evans-en lanaren alde teknikoak xehetasunez eta sentsibilitate handiz aztertzen zituen.⁶

Depresio ondoren egin zuen lana ez da hain erakargarria. *Time* aldizkarirako liburuen kritikak idazten zituen eta *Fortune* aldizkarirako argazkilaria izan zen.

Bere bizitzako azken hamarkadan askoz gazteagoa zen emakume batekin ezkondu zen, Yale-ko Diseinu Grafikoko Eskolako irakasle izan zen eta Polaroid argazki makinekin esperimentatzen hasi zen. Gainera, azken urteetan bere bilduma era tragikoan saldu zuen. New Haven-en hil zen 1975eko apirilaren 10ean.

II.3. Jack Delano

XX. mendean argazkigintza dokumentala landu zuen argazkilari garrantzitsuenetakoa da. Artista bat izateaz gain ezaugarri etiko aipagarriak zituen eta oso solidarioa zen.

Kiev-en, Ukrainan, jaio zen 1914an familia judutar batean. Berezko izena Jacob Ovcharov zuen. Ama Armada Gorriko kapitaina izan zen eta aita irakaslea. 1923an AEBra joan ziren eta Filadelfia iparraldean, Bristol-en ezarri ziren. Hasieran musika ikasketak egin zituen *Curtis Institutuen*; Errusiako familia txiro baten ametsa seme-alabak musikari famatuak bihurtzea izaten baitzen. Gero, 1932-1936 bitartean Pennsylvania-ko Arte Ederren Akademian sartu zen eta ilustrazio eta diseinu grafikoan espezializatu. 1936an European zehar bidaiatzeko beka bat lortu zuen eta bertan museo eta artelan garrantzitsu asko ikusteaz gain bere lehen argazki makina erosi zuen. Berak esan zuenez hasiera batean argazkiak turista gisa ateratzen zituen baina espresio bide bat bezala interesatzen hasi zitzaizkion pixkanaka.



16. Irudia: Jack Delano, FSAko bezero baten alaba, Green County, Georgia, 1941

⁶ Azken bost ahapaldiak: Jeffrey-ren lanaren (1999) 8. kapitulua

1938an Pottsville-ko meatzariei buruzko saiakera bat egin zuen, Roosevelt-en gobernuak sortutako Arteen Proiektu Federalaren diru laguntzaz. Lan honen erakusketa Paul Strand-ek ikusi eta goraiatu zuen; kritika honek New York-era joatera bultzatu zuen eta bertan Irene ezagutu zuen, gero bere emaztea izango zena. Honetaz gain, Strand-ek Delano-ri buruz hitz egin zion Stryker-i eta FSA-n sartu zen 1940an. Urte hauetan Virginiako hegoaldean, New England-en, Hegoaldean orokorrean eta Greene County-n egon zen eta FSAko argazki nagusienetako batzuk egin zituen.

1941ean Puerto Rico eta Irla Birjinetara bidaiatu zuen Washington-ek administratzen zituen lurralde hauetako gizarte egoera dokumentatzeko. Bidaia hau oso garrantzitsua izan zen eta Bigarren Mundu Gerraren ostean Jack eta Irene Puerto Rico-ra joan ziren bizitzera. Baina bertara joan aurretik AEBko trenbideei eta Mendebaldeko merkantzia sistemari buruzko azterketa sakon bat egin zuen.

Puerto Rico-n dokumental hezitzaileak egin zituen bere emaztearen laguntzarekin. Puerto Rico-ko telebista hezitzailearen sorreran ere parte hartu zuen eta 1957-1969 bitartean irrati eta telebista zerbitzuaren zuzendari izan zen. Kargu hau uztean 70. hamarkadan lan pertsonaletan sartu zen buru belarri eta musika, diseinu grafikoa eta liburuen argitalpena interesatu zitzaizkion batez ere.

1979an uhartean zehar bidaiatzeko aukera eman zion beka bat lortu zuen, 1941ean ezagututako leku eta pertsonak berriro erretratatu ahal izan zituelarik. Bidaia honen emaitzak 1987an Buenos Aires-en antolatu zen *Kontrasteak* erakusketa eta *Nire Puerto Rico* liburua izan ziren.

Delano Puerto Rico-n hil zen 1997ko abuztuaren 2an.

II.4. Ben Shahn

Margolari, argazkilaria eta ilustratzaile hau Kovno-n, Lituania jaio zen 1898an. 1906an bere familia AEBra joan zen. Hamalau urte zituela litografia aprendiz gisa hasi zen eta urte batzuk geroago arte ikasketa ugari egin zituen: *New York Universityn*, *The City College of New Yorken*, *National Academy of Designen* eta *Art Students Leaguen*.

Hogeigarren hamarkadan Alderdi Komunistaren partaide egin zen. Bere lehenengo lanetan garaiko istilu edo nahasketa politiko, ekonomiko eta soziala islatu zuen, Depresio Handia batez ere. Arte sozial eta politikoarenganako interesa hil arte mantendu zuen.

1930ean Walker Evans-ekin estudio berean lan egin zuen eta argazkigintzan berari esker hasi zen. 1935ean RAn sartzeko eskatu zioten eta 1938ra arte artista eta argazkilaria gisa lan egin zuen, batez ere Hegoaldean, Ohion eta New York-en. OWI-rako propaganda egiten ere lagundu zuen.



17. Irudia: Ben Shahn, *Egunkaria saltzen duen umea*, Newark, Ohio, 1938

Ben Shahn-ek injustizia eta bidegabekeria gorroto zituen. Kontzientzia sozial hau, bihozberatasuna eta justizia zentzua etorkin bat izateak eta langile mugimendu aurrerakoiaren partaide izateak beharbada indartu egin zuen. Artea batez ere mezu sozial bat bidaltzeko bide gisa ikusten zuen eta bere lan alegorikoetan gerra, holokausto nuklearra, langile eskubideak, gizarte justizia, zentsura, eta aurrerapen teknologikoaren arriskua bezalako gaiak erabili zituen.

Diego Rivera mural egile mexikarrarekin lan egin zuen 1932 inguruan eta honen ostean gizarte justizia gaitzat zuten bi mural egiteko asmoa hartu zuen, bata debekuaren inguruan eta bestea lehengo presondegien injustiziar buruz. Baina bertan behera utzi behar izan zituen.

Bere lanik ezagunenetakoa *Sacco eta Vanzetti-ren pasioa* da. Hogeita hiru zatiz osatutako mural bat da eta justizia federalari kritika egiten dio. Nicola Sacco eta Bartolomeo Vanzetti anarkista italiarren auzia jasotzen du, beraiek burutu ez omen zituzten delitu batzuegatik 1927an exekutatuak izan zirenak. Auzi honek eztabaida internazionala piztu zuen eta askok uste zuten beraien ideiegatik epaituak izan zirela eta ez froga garbiengatik. Shahn-ek kezka hauek jaso eta artearen bidez erakutsi zituen.



18. Irudia: Ben Shahn, *Maizter baten etxearen barrualdea*, Louisiana, 1935

FSArako lan egin zuen garaian baserritar maizter baten etxean ume baten argazkia atera zuen (18.a). Umeak argazki makinari begiratzen dio eta eskua ahora darama ezbeharren bat entzun izan balu bezala. Zuzeneko argazki bat atera beharrean goitiko perspektiba erabiltzen du, horrela, ikusleak umea goitik ikustean bere babesgabezia somatu dezake, ikaraz eta laguntza eske begiratzen baitio. Begirada honen tentsioak edozein hunkitu dezake. Argazki honen helburu nagusia umearen larritasuna eta atsekabea ikustean ikuslea ezeroso sentiaraztea litzateke eta ukazina da teknika efektiboa darabilela.

Bere bizitzan zehar erakusketa indibidualak egin zituen eta sari ugari ere jaso zituen. 1969ko martxoaren 14an New York-en hil zen.


II.5. Dorothea Lange

Hoboken-en, New Jersey-n jaio zen 1895ean. Zazpi urte zituela polioa hartu zuen eta honen ondorioz herren geratu zen; honek, agian, argazki makinarekin ibiltzerako orduan jendearen konfiantza lortzen lagundu zion, baita besteen tristura eta mina ulertzeko gaitasuna eman ere, bere argazkiek sentsibilitate hau islatzen baitute. Baina era berean hau esaten zuen: *agian gertatu zaidan gauzarik garrantzitsuena izan zen, moldatu ninduen, gidatu ninduen, erakutsi egin zidan, lagundu ninduen eta desorekatu ninduen*; edo beste hau: *nire bizitza aldatu zuen eta gazte nintzela erakutsi zidan errealitate latz honek egin dezakeena, pertsona on eta inozenteak jasan dezakeena*.

Eskola ez zuen gehiegi maite eta ahal zuenean klasera joan ordez museo eta galerietan orduak pasatzen zituen; nahiko ume bakartia zen. Irakasle eskola batean hasi zen ikasten, batez ere bere ama eta amonaren nahia betetzeko, baina berak dagoeneko bazekien argazkilaria izan nahi zuela nahiz eta ez zuen inoiz argazki makina bat izan.

1914an Arnold Genthe-ren estudioan lanean hasi zen eta 1917-1918an Clarence White argazkilaria ren ardurapean Columbiako Unibertsitatean ikasi zuen. Argazkigintzaganako zuen zaletasuna nabarmenki gehitu zen eta 1918an munduan zehar bidai bat egitea erabaki zuen argazki makina eskuan harturik. San Frantziskon bukatu zuen eta laster estudio batean lanean hasi zen eta geroago estudio propioa izan zuen; erretratuak egin zituen batez ere. Hiriko bizitza sozialean barneratu zen, bohemio eta artistez inguratuz eta bertako argazkilaria famatuenetakoa bihurtu zen. 1920an Maynard Dixon margolariarekin ezkondu zen eta 1922an senarrari lagundu zion Arizonatik bidaia bat egiten, lehenengo aldiz aire zabalean argazkiak egiten aritu zelarik. Hola, Amerika berri bat ezagutzeko aukera izan zuen.

1935ean Dixon eta Lange banandu egin ziren eta Dorothea Paul Taylor ekonomilariarekin ezkondu zen. Esan behar da Lange-n lana ez litzatekeela berdina izango Taylor gabe. Urte horretan senarrarekin batera *California Rural Rehabilitation Administration* (Kaliforniako nekazaritzaren birgaitze administrazioa) lanean hasi zen eta baita RAko argazkilaritza sailean ere, gero FSA izango zena.



19. Irudia: Dorothea Lange, *Ama emigrantea*, Nipomo, Kalifornia, 1936

Bere argazkiak errealista eta artistikoak dira, baina berak ez zuen bere burua artistatzat jotzen. Pertsona sentimentalista zen eta giza-emozioz beteriko lan oso espresakorrak egin zituen. Jendea axola zitzaion batez ere eta hala esan zuen behin: *pertsonetan zentratu behar naiz, pertsonetan bakarrik, bai ordaindu didatenetan eta baita ez didatenetan ere*. Zerbait desberdina sortu zuen eta bere argazkiek pertsona baten aurpegian bizitza oso baten istorioa islatzea lortzen zuten.

Bigarren Mundu Gerrarekin Lange-k berriro ere gizartearen aldaketak eta mugimendua jaso zituen. Pearl Harbour gertatu eta hiru hilabete geroago Roosevelt-ek amerikar-japoniarrak Hegoaldean kontzentrazio-esparruetan sartzeko agindua eman zuen eta hortik gutxira *U.S. War Relocation Agency* (1942) (AEBko Gerrako Berkokatze Agentzia) Lange kontratatu zuen auzo japoniarrak, esparruko harrera zentroak eta instalazioak erretratatzeko. Alde batetik ausardia eta dignitatea eta bestetik atxiloketen duintasun eza biltzen zituen bere argazkietan. Argazki hauetako batzuk debekatu egin zituzten.



20. Irudia: Dorothea Lange, *Raphael Weill eskolan "Pledge of Allegiance"*
Abesten ebakuazioa baino aste batzuk lehenago, San Frantzisko, 1942

Honetaz gain gerrak Richmond hirian, Kalifornian, eta inguruetan izandako eragina ere erretratatu zuen. Hegoaldeko maizterren migrazio masibo bat egon zen portu-hiri honetara, gerra garaian lanpostuak gehitu baitziren zama-itsasontziak egiten; biztanleria bost aldiz gehitu zen. Lange-ri nahasketa etnikoa eta jende desberdinaren elkarbizitza interesatzen zitzaion batez ere. Irudi hauek *Fortune* aldizkarian jaso ziren.

Life aldizkarirako ere lan egin zuen 1954-1955 bitartean. 1958 eta 1965 artean bere senarrari lagunduz Asia, Hego Amerika eta Ekialde Hurbilera bidaiak egin zituen eta hemen ateratako argazkiek bere bizitzako azken bilduma bat osatu zuten.

1965ean Marin County-n, Kalifornian, minbiziaz hil zen, New York-eko Arte Garaikideko Museoan berari buruzko erakusketa zabalena zabaldu aurretik. Bakarkako eta talde erakusketa asko antolatu dira geroztik berari buruz eta AEBko argazkigintza pertsonaia garrantzitsua kontsideratu behar da.

Ondorioak

Hasteko aipatu beharrean aurkitzen gara harritu egin gaituela nahiz eta FSA gobernuaren erakunde bat izan argazki batzuetan kontraesanak aurkitzen direla. Adibidez, Dorothea Lange-ren *Manifestaldia* (21) argazkian Roosevelt-en aurkako manifestazio bat ikus daiteke. Hori ez da ohikoa normalean gobernuak arazoak estaltzeko joera baitute; baina ahaztu ezin den puntu garrantzitsu bat dago: argazki horiekin New Deal-aren aldeko propaganda egin nahi zen, AEBetan bizi zen egoera latza erakutsiz jendea aldaketak egitea beharrezkoa zela ohartarazi nahi baitzuten.

Depresioaren arrazoietakoa bat burtsan inbertitzeko nahi zoroa izan zen eta ondorengo burtsaren erorketa, baina burtsari buruz gutxi dakigunez ideia batzuk ez zaizkigu argi gelditu. Baina, hala ere garrantzizkoa iruditu zaigu depresioaren zergatiaren arrazoi orokorra ulertzea eta hori lortu dugula uste dugu.

Roosevelt-en lana orokorrean aurrerakoia iruditu zaigu eta kultura bultzatzeko erakundeak (musika, antzerkia, arte plastikoak, argazkigintza) berritzaileak dira. Gainera depresio eta gerra garaian zeudela kontuan hartuta harriztekoa iruditu zaigu estatuak artista langabetuei lana emateko asmoa.

Iruditu zaigu argazkilaritza historia irudikatzeke era egokia dela errealista baita, nahiz eta, manipulatu egon ahal den. Argazki batzuen gogortasunak irakurritako hitzei aurpegia jartzen lagundu digute eta horrek memorian denbora gehiagoz egoten ere laguntzen du.

Kontuan hartu beharrekoa iruditzen zaigu bokazioz egiten zutela lan eta ikusi eta bizi izan behar zutenak esperientzia oso gogorrak zirela. Gainera jaiotzen ari zen arte bat zenez zailtasunak ekarriko zituen jendeak beraien lanak ulertzeko orduan. Beste maila batean baino gaur egungo gerra kronikalarien lanarekin konparatu daitekeela uste dugu.

Oso lan aberasgarria iruditu zaigu taldekide batek argazkigintza ezagutzen baitzuen eta besteak berriz historiaren nondik norakoa. Orduan lan hau eginez argazkigintza ezagutzen zuenak argazkien zergati historikoa ezagutu du eta historia pixka bat ezagutzen zuenak aldiz historian sakondu eta argazkilaritza ezagutzeko beta izan du.

Bibliografia

- Calado, J. (2000): *Terra Bendita*, Fundação Eugenio de Almeida, Portugal, (katalogoa).
- Coles, R. (1998): *Dorothea Lange, Photographs of a lifetime*, Könemann, Hong Kong.
- Degler, C.N. (1986): *Historia de los Estados Unidos, el desarrollo de una nación (1860-1985)*, Ariel, Bartzelona.
- Fernández, A. M.: *Historia Universal, siglo XX (1900-1945) I*, Óceano Instituto Gallach, Bartzelona, 17. bol.
- Jeffrey, I. (1999): *La fotografía, una breve historia*, Destino, Bartzelona.
- Jones, A. M. (1996): *Historia de Estados Unidos 1607-1992*, Cátedra, Madril.
- Paul Adams, W. (1984): *Los estados unidos de América*, Historia Universal Siglo XXI, Madril, 30. bol.

Kontsultatutako web orriak:

- <http://memory.loc.gov/ammem/fsahtml/fahome.html>
- <http://memory.loc.gov/ammem/fsahtml/fabout.html>
- http://lcweb.loc.gov/rr/print/085_disc.html
- <http://www-2.towerhill.org/SJhtml/Todd/shahn.html>
- <http://desires.com/1.6/Word/Rewiews/Docs/evans.html>
- http://elhalo.hypermart.net/jack_Delano.html
- http://www.masters-pf-photography.com/L/lange/lange_articles1.html
- <http://www.ott.zynet.co.uk/polio/lincolnshire/library/drhenry/dorothealange.html>